

# UNITATE DIDAKTIKOA 1

# neskak eta MUTILAK

Sexu-aniztasunaren  
balioa



# UNITATE DIDAKTIKOA 1

## NESKAK ETA MUTILAK

### SEXU-ANIZTASUNAREN BALIOA

Munduan 2.000 milioi haur baino gehiago daude. Denak desberdinak dira.

Izaki anitz eta bakarrak izatearen aberastasuna erakustea eta baloratzea da unitate didaktiko honen helburua. Benetako haur eta gaztetxoek argazki eta kontakizunen bidez, neska eta mutil izateko hamaika modu daudela erakutsi nahi dugu. Material honen bidez, ikasle bakoitzak aurkeztutako argazki eta kontakizunetan bere burua islatuta ikus dezake, eta ondoren, bere sexu-identitatearen inguruan eta neska eta mutil izateko bere modu berezi eta bakarraren inguruan hausnartu ahalko du.

Norbera den bezalakoa izatearen garrantzia azpimarratuko dugu, osotasunean garatu eta hedatu ahal izateko, norbera bere ezaugarriekin, moduekin, gustuekin... norberaren izateko modu berezia baloratzuz. Desberdinak izatea delako, hain zuzen, ederrak egiten gaituena.

---

#### **Unitate didaktikoa diseinatua izan da:**

- Sexologiako profesionalentzat.
- Edozein irakasle edo hezitzaileentzat, nahiz eta sexologian formakuntza espezifikorik ez izan, hori bai, sexu aniztasunarekiko sentsibilitatea dutenentzat.\*

---

#### **Zuzenduta dago:**

- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleei.

[\*] Unitate Didaktiko hau diseinatua izan da edozein irakaslek erabili ahal izateko, nahiz eta sexologian formakuntza espezifikorik ez izan; baina kalitatezko Sexu Heziketa bermatzeko, esku-hartzea Sexologiako profesionalak egitea gomendatzen dugu. Horretarako, Sexu Heziketako profesional adituen sare bat sortu dugu, Oinarrizko Sexu Heziketako "Neskak eta mutilak" proiektua eskaintzen dutenak (proiektu horretan, besteak beste, Unitate Didaktiko hau garatzen da): [www.niñasyniños.com/unitate-didaktikoa/?lang=eu](http://www.niñasyniños.com/unitate-didaktikoa/?lang=eu)

---

## Helburuak:

1. Sexuen inguruan dagoen aniztasuna ezagutzea.
2. Sexu aniztasunaren adierazpenak baloratzea.
3. Giza Sexu Izateari buruzko ezagutza eta oinarrizko ideiak helaraztea.
  - Sexuak: neskak eta mutilak.
  - Moduak: femeninoa eta maskulinoa.
4. Intersexualitatearen teoria ezagutzea.
5. Sexu identitatea auto-kontzientzia izate bat dela eta genitaletan ez dela kokatzen ulertzea.
6. Neskak ez direla modu batekoak eta mutilak beste modu batekoak, eta ez dutela zertan izan ulertzea.
7. Garen bezalakoak izan ahal dugunean, osoago garatzen garela jabetzea.

---

## Edukiak:

- Sexuak.
- Sexuazioa.
- Sexualitatea.
- Sexu-identitatea.
- Intersexualitatea.
- Sexu-aniztasuna.

**1. Ideia-zaparrada**

- Arbela bitan banatzen da, erdian marra bat eginez.
  - Letra handiekin idazten dugu:
    - ezkerraldean, «NESKAK»
    - eta eskuinaldean, «MUTILAK»
- Ikasleei galdetzen diegu:
  - Zer esan nahi du zuretzat neska izateak? Eta mutila izateak?
  - Zergatik da mutil bat mutila? Eta zergatik da neska bat neska?
  - Zu zergatik zara mutila? Zu zergatik zara neska?
  - Zerk egiten du mutil bat mutila izatea? Zerk egiten du neska bat neska izatea?

Erantzun ahala, arbeleko alde banatan jasoko ditugu haien erantzunak. Ez gara esaten dutenari buruzko eztabaidan sartzen.

Arbelean idazten goaz eta, bukaeran, paper batean kopiatzen dugu edo argazki bat egiten diogu. Horrela, orain idatzitakoa unitate didaktikoan ikusiko ditugun errealitateekin kontrastatzen joan ahal izango gara eta ondorioetara iristen garenean, baita ikasleen planteamenduetan aldaketak ikusi ere.

**2. Argazkien ikuskatzea**

Gidoiaren Argazkiz Argazki atalari jarraituko diogu. Bertan 4 zutabe daude:

A	B	C	D
Argazkia, sexua eta izena	Asmatzeko galderak eta haurraren esaldia	Hausnartzeko galdekizunak	Oinarrizko ideiak

- Ikasle bakoitzari emango diogu:
  - N letra idatzita duen txartel hori bat eta
  - M letra idatzita duen txartel berde bat.
- Argazkien proiektzioarekin hasten gara:
  - Argazkiak sexu-aniztasunaren arlo desberdinei buruzko hausnarketa hari progresibo bat ahalbidetzeko ordenatuta daude.
  - Ikasleei jakinarazten diegu ikusiko ditugun argazkiak benetako haurren argazkiak direla, haien bizitzako benetako kontuei buruz mintzatzen, eta Neskak eta mutilak liburuan jaso izan direla.
  - Proiektatutako argazki bakoitzak hiru «aldi» izango ditu:
    1. Argazkia soilik:
      - Ikasleek altxatu behar dute:
        - > «N» txartel horia, neska baten argazkia dela uste badute.
        - > «M» txartel berdea, mutil baten argazkia dela uste badute.

## 2. Argazkia eta izena:

- Neska edo mutila [A zutabea]:
  - > Neska edo mutila den eta bere izena esaten diegu.
- Asmatzen saiatzeko galderak [B zutabea]:
  - > Argazkiko haurri buruzko galdera pare bat egiten dugu, eta ikasleek erantzuna asmatzen saiatu behar dute.
  - > Galdera bakoitzari erantzuteko saiakeren ondoren, galdera horren erantzuna esaten diegu.
  - > Erantzunei buruzko beren gogoetak taldearekin partekatze aukera ematen dugu, sortzen diren iruzkinak jasoz.

## 3. Argazkia, izena eta esaldia:

- Esaldia:
  - > Argazkiko haurrak esandakoa irakurtzen dugu.
- Hausnartzeko galdekizunak [C zutabea]:
  - > Aniztasunaren inguruko hainbat galdekizunen bidez, ikasleei haien hausnarketak, galderak eta zalantzak partekatze aukera ematen diegu.
- Oinarrizko ideiak [D zutabea]:
  - > Oinarrizko ideia batzuekin amaitzen dugu.

---

## 3. Ondorioak

- Unitatean zehar sortutako hausnarketa guztietatik, esanguratsuenak birformulatzen ditugu.
- Hasierako ideia-zaparradako galderak berrartzen ditugu eta hasieran erantzun zutenarekin zein aldaketak eman diren ikusten dugu. Hasierako galdera horiei beste hainbat galdera gehitu ahal dizkiegu orain:
  - Zergatik da mutil bat mutila? Eta zergatik neska bat neska?
  - Zerk egiten du mutil bat mutila izatea? Zerk egiten du neska bat neska izatea?
  - Mutil guztiak berdinak dira? Galdetu ahal dugu orduan ea «nolakoak diren mutilak»?
  - Neska guztiak berdinak dira? Galdetu ahal dugu orduan ea «nolakoak diren neskak»?
  - Ba al daude «nesken gauzak» eta «mutilen gauzak»?
  - Ba al dituzte mutilek ezaugarri femeninoak? Eta neskek ezaugarri maskulinoak?
  - Izan liteke norbaitek ez edukitzea ezaugarri maskulino zein femeninoak?
- Amaitzeko, Unitate Didaktikoan landutako hainbat ideia plazaratu ahal ditugu berriz:
  - Neska zara edo mutila zara hala zarela badakizulako, hala sentitzen duzulako.
  - Bulba edo zakila izatea ez da mutila edo neska egiten zaituena.
  - Badaude portaerak, jolasak, ezaugarriak, gustuak... nesketan mutiletan baino maizago ematen direnak eta, horregatik, femeninoak izendatzen ditugu. Beste batzuk mutiletan nesketan baino maizago ematen dira eta, horregatik, maskulinoak izendatzen ditugu. Ezaugarri guztiak, femeninoak eta maskulinoak, neskek eta mutilek partekatzen dituzte, eta ez dago horietako ezaugarri bakar bat ere neska edo mutil egiten gaituena.
  - Denok gaude eginda elementu femenino eta maskulinoen nahasketa batekin. Nahasketa hori bakararra da gizaki bakoitzean, eta horrek egiten gaitu desberdin eta bereziak.
  - Norbera den bezalakoa izatea altxor preziatu bat da.

---

Unitate didaktikoa 45-50 minutuko bi saioetan lantzea proposatzen dugu. Proposamen hau orientabide bat baino ez da, noski, eta garatuko den taldearen arabera egokitu beharko da.

## • 1. saioa

- Idea-zaparrada.
- Argazkiz argazki [1.-4. protagonistak].
- Lehenengo ondorioak.

## • 2. saioa

- Aurreko saioaren errepassoa.
- Ikasleei lehenengo saioaz gogoratzen dutena partekatzeko proposatzen diegu, baita gerora horri buruzko zerbait hausnartu duten edota norbaitekin horri buruz hitz egin duten.
- Argazkiz argazki [5.-14. protagonistak].
- Ondorioak.

# BEHAR DEN MATERIALA

---

Ondoko materiala behar da:

- Arbela [eta klarionak edo arbelerako errotuladoreak].
- Kartulinazko txartelak, horiak [N letrarekin] eta berdeak [M letrarekin], ikasle bakoitzarentzat bat.
- Unitate didaktikoaren gidioa.
- Argazki-segida duen proiektatzeko fitxategia.
- Ordenagailua, proiektorea eta pantaila.



A	B	C	D
Protagonistak	Asmatzeko galderak	Galdekizunak	Oinarrizko ideiak
 <p>1. Awa, neska.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ba al dakizue zeren bildumak egiten dituen? —Futbolarien kromoenak.</li> <li>• Apaina al da? —«Ilean urkilak eta loreak jartzea atsegin dut, hainbat orrazkera probatzea eta perfumeak erabiltzea».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neska guztiek ile luzea daramate?</li> <li>• Neska guztiei gustatzen zaie orrazkerak probatzea eta apaingarriak jartzea ilean?</li> <li>• Ba al daude mutil apainak?</li> <li>• Eta ile luzea daramaten mutilak?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neska izateko eta mutila izateko modu asko daude.</li> </ul>
 <p>2. Amanda, neska.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer du, zakila edo bulba? —Bulba.</li> <li>• Bere kolore gogokenak? —Berdea eta urdina.</li> <li>• Zer egitea gustatzen zaio? —«Zuhaitzetan gora igotzea maite dut. Eta erremintak erabiltzea eta gauzak konpontzea ikaragarri gustatzen zait».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baliteke neska izan eta ile motza eramatea?</li> <li>• Neska guztiei gustatzen zaie zuhaitzetara igotzea?</li> <li>• Neska guztiei gustatzen zaie arrosa kolorea?</li> <li>• Zein da zuen kolorerik gogokoena?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neska bakoitza neska da bere erara eta mutil bakoitza mutila da bere erara; era guztiak zilegiak dira eta ez dago bat besteak baino hobea denik.</li> </ul>


A	B	C	D
Protagonistak	Asmatzeko galderak	Galdekizunak	Oinarrizko ideiak
 <p data-bbox="150 689 373 725">3. Unax, mutila.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="475 434 785 607">• Zein da bere kirolik gogokoena? —Futbola, eta joko garbia maite du, liskarrik gabea.</li> <li data-bbox="475 622 785 757">• Zein kolore gustatzen zaio gehien? —Berdea eta urdina [Amandari bezala].</li> <li data-bbox="475 772 785 1048">• Zertan ez da bere lagunak bezalakoa? —«Nire lagunak baino txikiagoa eta argalagoa naizenez jauzi handiagoak egin ditzaket, eta edozein zulotan sar naiteke».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="801 434 1110 510">• Mutil guztiek gogoko dute futbolean jolastea?</li> <li data-bbox="801 526 1110 622">• Ba al daude futbolean jolastea gustuko duten neskek?</li> <li data-bbox="801 638 1110 1019">• Zenbaitetan elkarren antzekoak gara, adibidez, Unaxi eta Amandari kolore berdinek gustatzen zaizkie. Eta beste batzuetan elkarren oso desberdinak gara, Unax kasu, bere lagunak baino txikiago eta arinagoa dela.</li> <li data-bbox="801 1034 1110 1131">• Zenbait gauzatan desberdinak izatea gustatzen zaizue?</li> <li data-bbox="801 1146 1110 1243">• Egon daitezke guztiz berdinek diren bi pertsona?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="1126 434 1436 568">• Norbera izaki berezi eta bakarra da. Eta horrek egiten gaitu bitxiak eta ederrak.</li> </ul>
 <p data-bbox="150 1599 373 1635">4. Gael, mutila.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="475 1344 785 1440">• Zer du, zakila edo bulba? —Zakila.</li> <li data-bbox="475 1456 785 1628">• Zeintzuk dira bere arropa gogokoenak? —Elastikoak, felpak, bailarinak, gonak eta soinekoak.</li> <li data-bbox="475 1644 785 1816">• «Beti argitu behar izaten diot, ezagutzen ez nauen orori, ez naizela neska, mutila baizik».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="801 1344 1110 1619">• Mutil batek ilean txirikordak egiten baditu, aldakak markatzen posatzen badu edo soinekoak janzen baditu... mutil izateari uzten al dio? Neska bihurtzen al da?</li> <li data-bbox="801 1635 1110 1769">• Eduki al ditzake mutil batek ezaugarri femeninoak eta mutila izaten jarraitu?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li data-bbox="1126 1344 1436 1583">• Zerbait femenino gisa izendatzen dugu neskek mutilek baino maizago egiten edo erabiltzen badute edo maizago agertzen den ezaugarri bat dutenean.</li> <li data-bbox="1126 1599 1436 1733">• Eta maskulino mutiletan nesketan baino maizago agertzen denean.</li> <li data-bbox="1126 1749 1436 1921">• Baina zerbait femeninoa izateagatik ez da neskena. Eta maskulinoa denak ez zaitu mutila egiten.</li> </ul>



A	B	C	D
Protagonistak	Asmatzeko galderak	Galdekizunak	Oinarrizko ideiak
 <p>5. Zuhar, mutila.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ze kirol praktikatzen ditu? —Skatean aritzen da, surfean, padel supean, skyan, bizikletan, futboleant... eta hip hopa dantzatzen du.</li> <li>• Zer du, zakila edo bulba? —Bulba.</li> <li>• «Mugimenduan egotea da gehien atsegin dudana».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezagutzen duzue bulba duen mutilen bat?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mutil gehienek zakila dute eta, gutxiago badira ere, badaude bulba duten mutilak.</li> </ul>
 <p>6. Maren, mutila.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer du, zakila edo bulba? —Zakila.</li> <li>• Ze kirol praktikatzen ditu? —Balleta, surfa eta skate.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezagutzen al duzue, Maren bezala, balleta gogoko duen mutilik? Eta dantzatzea gustuko duenik? Ze dantza motak ezagutzen dituzue?</li> <li>• Skatean aritzen diren neskak ezagutzen dituzue?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neskak eta mutilak osatzen dituzten ezaugarri guztiak partekatzen dituzte haur guztiak neurri handiago edo txikiagoan.</li> </ul>
 <p>7. Jara, neska.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jende askorekin egotea gustatzen zaio? —Ez asko. Erosoago sentitzen da talde txikietan.</li> <li>• Belarritakoak dauzka? —Bakar bat.</li> <li>• «Lehen ile motza neraman beti, eta belarritakorik ez. Bizitza osoa igaro dut mutila naizela entzuten. Orain ile luzea daukat, eta zulo bat egin dut. Min handia egin dit eta zornatu egin zait; horregatik, bestea ez egitea erabaki dut».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Batzuetan gauzak egiten ditugu besteek neska edo mutil garelako jakiteko.</li> <li>• Gertatu zaizue inoiz inork beste sexuarekin nahastu zaituztela?</li> <li>• Gerta liteke ez jakitea aurrean dugun pertsona neska edo mutila den. Nola jakin ahal dugu?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egiazki, modu bakar bat dago ziur jakiteko norbait neska edo mutila den: berari galdetuz.</li> </ul>

A	B	C	D
Protagonistak	Asmatzeko galderak	Galdekizunak	Oinarrizko ideiak
 <p data-bbox="151 689 347 728">8. Alai, neska.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer du, zakila edo bulba? —Zakila.</li> <li>• Nola jaio zen —Itzulipurdi bat eginez, eta geroz eta jauzi handiagoak egiten ditu orain.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezagutzen duzue zakila duen neska bat?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bulba edukitzea ez da neska egiten zaituena, eta zakila izateak ez zaitu mutila egiten.</li> </ul> <p data-bbox="1129 589 1377 656">Sexu-identitatea ez dago genitalean.</p> <p data-bbox="1129 674 1401 775">Nonbait balego, burmuinean dagoela esan genezake.</p>
 <p data-bbox="151 1149 352 1187">9. Laia, neska.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Badakizue nolakoa zen txikitik berak aukeratu zuen lehen mozorroa? —Maitagarrien mozorro bat guztiz arrosa.</li> <li>• Orain gustukoa al du arrosa kolorea? —Ez asko.</li> <li>• Zergatik da neska? —«Ni neska bat naiz, neska naizela badakidalako».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zerk egiten du neska edo mutilak izatea, emakumeak edo gizonak?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Norberak soilik jakin dezake neska edo mutila den. Jakiten den zerbait da, sentitzen dena. Horixe da sexu-identitatea. Ez da ez aukeratzen ez erabakitzen; jakiten da.</li> </ul>
 <p data-bbox="151 1697 387 1736">10. Lluvia, neska.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Noiztik daki neska dela? —Betidanik.</li> <li>• Garai batean Lluviak uste zuen uneren batean aldatu eta mutil izan zitekeela. Handia izan eta gero, atzera berriz ninia izan zitekeela ere uste zuen. Posible al da hori? —Ez.</li> <li>• Ba al dakizue zer gustatuko litzaiokeen Lluviari? —«Mutila izan nahiko nuke, mutila izatea nolakoa den jakiteko...».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izan duzue inoiz beste sexukoa izatea nolakoa izango den jakin-mina?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrek oso txikitatik dakite neska edo mutila diren. Hitz egiten hasten direnetik hitzez esaten dute. Neska edo mutil izatea ez da denborarekin aldatzen. Bai aldatzen da, ordea, neska edo mutila izateko modua.</li> </ul>

A	B	C	D
Protagonistak	Asmatzeko galderak	Galdekizunak	Oinarrizko ideiak
 <p>11. Candela, neska.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer du, zakila edo bulba? —Bulba.</li> <li>• Zer izan nahi du handitan? —Trapezista.</li> <li>• Oso gustuko du igeri egitea, patinatzea, bizikletan ibiltzea, zuhaitzetan gora igotzen eta, batez ere, zirkua atsegin du. Asko gogaitzen duen gauza bat esaten diote batzuetan. Badakizue zer? —«Mutilen gauzak» egiten dituela.</li> <li>• Badakizue zer erantzuten duen berak? —«Ez daude mutilen gauzak, ezta nesken gauzak ere».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Candelarekin ados al zaudete? Ba al daude nesken keinu edo jarrerak? Ba al dago mutilen arroparik? Edo nesken orrazketarik?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Badaude nesketan maizago ikusten ditugun ezaugarriak [jolasak, zaletasunak, gustuak, jarrerak...], baina horrek ez du esan nahi “neskenak” direnik, hainbat mutiletan ere ematen direlako. [Eta alderantziz]. Denok gaude eginda ezaugarri femenino eta maskulinoen nahasketa batekin. Gustu, modu, jarrera... horiek guztiak neskek eta mutilek partekatzen dituzte.</li> </ul>
 <p>12. Erik, mutila.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zein da bere kolore gogokoena? —Arrosa.</li> <li>• Eta bere moztorro gogokoena? —Superheroa eta printzesa.</li> <li>• «Diadema janztea ez dela mutilen gauza, hori esaten didate batzuetan, eta kentzeko. Ez diet jaramonik egiten, eta nire gauzetan jolasten jarraitzen dut».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer deritzozue norbaitek Eriki diadema kentzeko esatea?</li> <li>• Zer deritzozue norbaitek esango balizue egiten ari zaretena egiteari uzteko, hori mutilen gauza delako eta zu neska zarelako [edo alderantziz]</li> <li>• Zer erantzungo zenioke diadema kentzeko Eriki esan diodanari?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Inork ez du zertan esan nolakoa izan behar duen norbait neska edo mutila izateagatik.</li> </ul>

A	B	C	D
Protagonistak	Asmatzeko galderak	Galdekizunak	Oinarrizko ideiak
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ze piruletak gustatzen zaizkio? —Bihotz forma dutenak.</li> <li>• Zer izan nahi du handitan? —Errugbi jokalaria. —«Borroka-jokoak gustatzen zaizkit gehien eta handitan errugbi jokalaria izan nahiko nuke».</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pentsatu al duzue handitan zer izan nahi duzuen?</li> <li>• Ba al daude emakumeen lanbideak eta gizonen lanbideak?</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Naizen bezala izaten uzten banaute, osotasunean garatu ahalko naiz.</li> </ul>
13. Josue, mutila.			

Unitate didaktiko honen kontzeptualizazioa Efigenio Amezúa<sup>1</sup> Incisex Sexologia Institutuan garatutako Giza Sexu Izatearen marko teorikoan oinarritzen da. Kontzeptualizazio horretan bere biografia osoan zehar sexu batz eta besteaz egiten doazen subjektuen errealitate sexuatuak deskribatzen da.

Gure planteamendua kokatzen da ulermen, zaintze eta lantze jarrera batean, hau da: sexua ezagutua eta sustatua merezi duen balio bat bezala aintzakotzat hartuz; ulertuz sexuatuak izateak aniztasuna dakarrela berekin, eta horrek aberastasuna; eta, ezagutza sustatuz, norberak sexuatuak izateko bere modua berezia onartuz eta garatuz.

Hona hemen, Unitate Didaktiko hau garatzeko, ezagutzea nahitaezkoa den Giza Sexu Izatea ulertzeko oinarritzko ideia batzuk:

---

## 1. Sexuak: neskak eta mutilak

- Neska eta mutil, emakume eta gizon, izateari erreferentzia egiten dio sexuak. Sexuazio prozesua deritzon hau izaki sexuatu egiten gaituen prozesu biografiko baten moduan ulertu behar da. Continuum batetaz ari gara, sexuen continuuma, subjektu guztiek bi sexuak ezaugarriak partekatzen dituztelako (intersexualitatea), ezaugarri horiek biografiaren haria osatzen doazela.
- Neskak eta mutilak sexuatuak doaz, sorkundearen unetik eta bizitza osoan zehar, emakume eta gizon berdinak eta konkretu bilakatuak.
- Askotan hitz-elkarteetan «sexu» terminoa erabiltzen da, «genital» adierazi nahi denean. Are, badago «genital»ei «sexu» deitzen dienik. Ezinbestekoa da nozioak eta kontzeptuak nahasteari uztea: gauza bat da genitalak, eta bestea sexua. Kontu bat da daukaguna, eta beste bat garena.

---

## 2. Moduak: femeninoa eta maskulinoa

- Femenino gisa izendatzen ditugu nesketan mutiletan baino maizago agertzen diren ezaugarriak.
- Eta maskulino gisa mutiletan nesketan baino maizago agertzen direnak.

---

<sup>1</sup> Efigenio Amezúa Incisex Sexologia Institutuko zuzendaria da: [www.sexologiaenincisex.com](http://www.sexologiaenincisex.com)

---

### 3. Intersexualitatea

- Subjektu sexuatu guztiak maskulinoan eta femeninoan sexuatzeko gara.
- Denok ditugu, neurri desberdinetan bada ere, ezaugarri maskulino eta femeninoak.
- Proporzio desberdinetan ematen den ezaugarrien nahasketa hori bakana da gutako bakoitzean, eta horixe da elkarren desberdin, eta era berean antzeko, egiten gaituena.

---

### 4. Sexu-identitatea

- Norbere burua neskatzat edo mutiltzat jotzea hizkuntzaren ahalmena izan orduko adierazten den zerbait da, bi urteren bueltan.
- Auto-pertzepzio honen ganean, eta gainontzekoen begiradekin eta bizi garen jendartearekin dauzkagun hartu-emanak tarteko, norbere sexu-identitatea eraikitzen da, hau da, naizen neska edo mutila izateko modu berezi eta bakana.
- Sexu-identitatea kontzientzia-ekintza bat da.
- Norbera neska edo mutila da, hala dela badakielako.
- Sexu-identitatea ez dago genitalean. Neska gehienek bulba daukate eta mutil gehienek zakila daukate. Halaber, badaude zakila duten neskak eta bulba duten mutilak.
- Zakilaren zein bulbaren antzik ez duten genitalak ere badira, edo bien tankera dutenak aldi berean<sup>2</sup>. Baita genitalik ez dutenak ere.
- Zakila duten neskak eta bulba duten mutilak egotea, edo zakilaren zein bulbaren antzik ez duten genitalak dituztenak, edo kanpo genitalik ez dutenak ere, ez du zalantzan jartzen neska gehienek bulba dutela eta mutil gehienek zakila dutela.
- Neskak eta mutilak dauden bezala, hala direla dakitelako, ez neska ez mutil sentitzen ez denik ere egon daiteke, eta beraz ez da izango ez neska, ez mutila (hori bai, beste guztiak bezala, ezaugarri maskulinoa eta femeninoak dituen subjektu sexuatu izango da). Ez neska ez mutil denarentzat gizarteak jarritako oztopo askoren artean, badago aipatu nahi dugun bat: hizkuntzak ez diola bere burua izendatzeko aukerarik eskaintzen.
- Ez neska ez mutil den norbait izateak ez du esan nahi neskak eta mutila ez direla existitzen edo ez luketela existitu behar.
- Norberak adierazten duena entzutea eta errespetatzea da garrantzitsuena, esandakoa zalantzan jarri gabe, eta kanpotik esan gabe ez zer den, ez zer izan behar duen, ezta nolakoa izan behar duen ere.

---

<sup>2</sup> Azken urteotan errealitate hau izendatzeko «intersexualitate» terminoa erabili izan da eta erabilera horrek sexuen eta sexualitatearen ideia genitalekin nahastera darama. Unitate Didaktiko honetan «intersexualitate» terminoa erabiltzen dugu XX. mendearen hasieran sortu zen eta marko sexologikoan erabiltzen den zentzuan, hau da, subjektu guztiek bi sexueto ezaugarriak ditugula adierazteko (beraz, denok gara intersexualak).

---

## 5. Sexu rolak (edo genero inposaketak)

- Jendarte bakoitzak neskek nolakoak izan behar duten eta mutilek nolakoak izan behar duten zehaztuta dauka gizarte bakoitzak hainbat aurreiritziren arabera.
- Aurreiritzi horiek inposaketa bihurtzen dira: «mutilak halakoak dira eta halakoak izan behar dute, eta neskak halako eta halako». Eta araua hausten duena hainbat modutan zigortua izaten da.
- Inposaketa hauek sufrimendua dakarte, eta zailtasunak norberaren garapenean.
- Mutilak ez dira modu batekoak, ezta neskak beste modu batekoak ere, eta ez dute zertan horrela izan.

---

## 6. Desira erotikoren orientazioa

- Anitzak, desberdinak, bereziak izatea da erakargarri bihurtzen gaituena.
- Badira nagusiki gizonezkoek erakarriak sentitu eta maitemintzen direnak. Eta badira nagusiki emakumeek erakarriak sentitu eta maitemintzen direnak. Honi deitzen diogu desira erotikoren orientazioa.
- Desiraren orientazioa nagusiki sexu bereko pertsoneri zuzentzen zaienean, homosexualitateaz hitz egiten dugu. Eta heterosexualitateaz desiraren orientazioa nagusiki beste sexuko pertsoneri zuzentzen zaienean.

---

## 7. Amatoria

- Amatoria deitzen zaie elkar maite edota elkar desiratzen duten subjektu sexuatuaren arteko bilaketetan eta elkartzeetan ematen diren jokabideei. Eta bilaketa eta elkartze horietan gertatzen denari eta gertatzeko moduari.
- Harreman bakoitzak berezko duen maitatzeko artea da amatoria, bere eszenaratzearekin, bere sedukzio, limurtze eta gorteiatzeekin, bere jolas eta plazerekin...
- Elkartze erotiko bakoitzak bere amatoria berezi eta ordezkazina du. Pertsona desberdinekin, amatoria desberdin izango da.

Unitate Didaktikoa egiterako orduan, ikasleen artean gerta daitezkeen hainbat egoera argitzea komeni da:

- Ikasleek liburuan agertzen diren haurrak modeloak direla eta irudiak «prestatutakoak» direla pentsatzea.

—Garrantzitsua da jakinaraztea benetako argazkiak direla, benetako haurren argazkiak. Eta agertzen diren esaldiak haur horiek esandakoak direla.

- Ikasleren batek [batez ere adin nagusienetan] aurkeztutako ideiarekin bat ukatzea [adibidez: «ezinezkoa da mutiko batek gustuko izatea soinekoak janztea»].

—Kasu hauetan gure gomendioa da pertsona horrekiko eta bere ideiekiko jarrera ulerkorra izatea; jarrera oldarkor edo moralista batean kokatzen bagara, litekeena da haur hori defentsiban jartzea, ideia berrien aurrean gehiago itxiz.

Ideien ulermenean hainbat nahasketa ere gerta daitezke:

- Honako ideia hauek nahastea:

—sexu-identitatea.  
—adierazteko moduak, gustuak, portaerak, sexu-rolak.  
—desira erotikoaren orientazioa.  
—amatoriaren jokabideak.

Nahasmenak ekiditeko, nahitaezkoa da ideia hauek argitzea [ikus Oinarrizko Ideiak atala] eta izatearen plano desberdinei erreferentzia egiten dietela eta konbinazio posible mugagabeak eman daitezkeela ulertaraztea. Adibidez:

—Mutil batek bulba eduki ahal du, bere jolasetan oso aktiboa izan, prakak jantzi eta nesketaz maitemindu.  
—Bulba duen eta soineko arrosak janztea edota sukaldean ibiltzea gustuko duen neska batek neskekiko erakarpenerotikoa senti dezake.  
—Zakila duen eta futboleko jolastea puzzleak egitea bezainbeste atsegin duen mutil bat beste mutil batekin maitemindu daiteke.  
—Zakila duen neska batek ilea oso motz eraman dezake eta belarritako oso luzeak, eta batez ere neskak maite ditzake.  
—Desira erotikoaren orientazio nagusia heterosexuala duen mutil batek, beste mutil batekin ligatu eta berarekin plazeraren jolasean disfrata dezake.  
—...

- Sexu-identitatea aukeratze edo erabakitze kontu bat dela pentsatzea.

—Sexu-identitatea autokonszientzia kontu bat da, ez da aukeratzen edo erabakitzen den zerbait. Izaten da eta kitto.



- Zakila duen neska bati buruz, «neska bat mutil baten gorputzean» dela pentsatzea.
  - Hau ez da posible: neska baldin bada, bere gorputza, bera den gorputza, neska baten gorputza da, bera neska bat delako. Modu berean, ez dira existitzen «mutilak nesken gorputzetan».
  - Genitalek ez dute egiten gorputz bat «neskena edo mutilena izatea»; genitalak ezaugarri sexuatu bat baino ez dira, beste askoren artean, femeninoagoak edo maskulinoagoak gerta daitezkeenak, beste ezaugarri sexuatu guztiak bezala.
- Zenbaitetan ikasle batzuk bi txartelak altxa ditzakete, ez dutelako argi argazkian agertzen dena neska edo mutila den. Egoera hau baliatu ahal dugu, inplizituki intersexualitatearen kontzeptua agerian uzten duelako: gu guztiongan osagai maskulinoak zein femeninoak daude.
- Gerta liteke ere, adibidez, ikasleren batek esatea bulba duen mutil bat aldi berean neska eta mutila dela. Ez haur horren identitatea ukatuz, baizik eta berak kanpotik suposatu duena gehituz. Honek ere intersexualitatera eramaten gaitu eta, gainera, aukera ematen digu bi prozesu desberdin ulertzeko:
  - Nola «etiketatzen» ditugun beste pertsonak kanpotik, sexu bat egotziz.
  - Eta nola pertsona bakoitzak bere burua neska edo mutil bezala identifikatzen duen.
 Gehienetan, pertsonaren barrutik eta kanpotik egindako bi sailkapen hauek bat datoz. Baina beste batzuetan ez. Garrantzitsua da ulertzea norberaren identitateari buruzko azken hitza soilik pertsona berak duela. Beraz, kanpotik huts egiten badugu, identifikazio oker hori zuzentzearekin nahikoa dugu.
- Hainbat etiketa erabili ohi dira bai sexu-identitateari buruz (zisexual, transexual, etab.), bai desira erotikoaren orientazioaz (gay, lesbiana, heterosexual, etab.) aritzean, eta baita Giza Sexu Izateari buruzko beste hainbat arloetan ere. Unitate Didaktiko honen helburua ez da subjektu sexuatuak etiketatzea, baizik eta haien errealitateak ulertzea. Ulertzen dugu batzuek etiketak bere gain hartzeko beharra eta zilegitasuna izatea, publikoki agertzeko, haien eskubideen alde borrokatzeko edota haien existentzia aldarrikatzeko, baina Unitate Didaktiko honen helburua ez da sexu-aniztasunaren espresioak epaitzea edo etiketatzea, baizik eta ulertzea.

---

## **Ikastetxeentzako gidak eta bestelako baliabideak**

- AEPS [Asociación Estatal de Profesionales de la Sexología]  
[www.aeps.es/recursos](http://www.aeps.es/recursos)

---

## **Sexu-heziketari buruzko artikulak**

- “Sexología en redes sociales” bloga  
[sexologiaenredessociales.wordpress.com/category/educacion-sexual/](http://sexologiaenredessociales.wordpress.com/category/educacion-sexual/)

---

## **Sexologiako artikulak**

- INCISEX Sexologia Institutua  
[www.sexologiaenincisex.com/articulos-de-sexologia/](http://www.sexologiaenincisex.com/articulos-de-sexologia/)

---

## **Haur eta gazteen transexualitatea ulertzeko eta laguntzeko baliabideak**

- Chrysallis Euskal Herria  
[chrysalliseh.eus](http://chrysalliseh.eus)

## Proiektuaren diseinua:

María Díaz Crujera  
José Luis Alvarado  
Aingeru Mayor

## **Neskak eta mutilak liburuan oinarrituta:**



## Laguntzailea:

**LIT-  
ERA**

[www.literalibros.com](http://www.literalibros.com)

## Gomendatzen du:



Asociación Estatal de  
Profesionales de la Sexología

